



NEWSLETTERRA - 2026ko IRAILA



Udal Aukerak

Zure udalerrirako aukerak

Deialdiak, dirulaguntzak eta finantzazio-aukerak biltzen dituen hileroko buletina, euskal toki-erakundeentzat

Hileko nabarmenena

Babesleku klimatikoak jartzeko dirulaguntzak
(Biodibertsitatearen Fundazioa – Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa)
Aurrekontua: 10.000.000 € arte

Laster ixtekoa

LIFE 2026 proposamenen deialdiak
(Europako Batzordea)
Epe-amaiera: 2026/09/03

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen sustatapena eta babesa
(Eusko Jaurlaritza)
Epe-amaiera: 2026/09/18

EB

LIFE programaren deialdia
Europako trantsizio berdea sustatzeko proiektuak finantzatzen ditu, arlo hauetan jarduerak eginez: natura eta biodibertsitatea, ekonomia zirkularra, bizi-kalitatea, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea, eta energia garbia lortzeko trantsizioa.
601,500,000 €-raino

Newsleterraren aurkibidea

Zenbaki honek Udal Aukerak zerbitzuaren deialdi aktibo nagusiak, Europako aukerak eta gomendio teknikoak jasotzen ditu. Nabigatu ataletan zehar zure udalerriri gehien egokitzen zaiona aurkitzeko.



Hileko nabarmenena

Aldi honetan zuzkidura handiena eta eragin handiena izan duen deialdi garrantzitsuena.



Aukerak, premiazkoak eta hurbilekoak

Berehalako epeak dituzten deialdiak eta datozen asteetan irekiko diren teaserrak.



Gomendio teknikoa

Udal Aukerak lantaldearen berariazko aholkua, eskaeretan arrakasta-tasa hobetzeko.



Deialdiak

Fitxa osoak, erakunde, epe, aurrekontu eta hartzaileekin, izapideak errazteko.



Zerbitzua eta kontaktua

Udal Aukerak-en newsletterari, deialdien bildumari eta baliabideei buruzko kontsultak egiteko, harremanetan jar zaitezke zerbitzuko taldearekin.



HILEKO DEIALDI NABARMENENA

Klimaren Babeslekuen Sarearen esparruan, klimaren babeslekuak jartzea

Biodiversidad Fundazioak deialdi bat argitaratu du babesleku klimatiko bihurtuko diren eta Klimaren Babeslekuen Sarean sartuko diren barne-espazioak moldatzen eta egokitzen laguntzeko. Aukera garrantzitsua da bero handiko egoerei aurre egiteko ekipamendu publikoak egokitu eta hiri-erresilientzia hobetu nahi duten toki-erakundeentzat.

10 M€

Zuzkidura guztira

Hiru laguntza-lerrotan egituratutako deialdia.

3 lerro

Proiektu bakoitzeko gehieneko zenbatekoa

Espazioak egokitzea, sarean integratzea eta klima-babeslekuei lotutako jarduketak.

Urriak 15

Eskaera egiteko epea

2026ko urriaren 15era arte



Gomendatutako ekintza: Beroari aurre egiteko gune seguru gisa funtziona dezaketen udal-eraikinak edo - ekipamenduak identifikatu, egungo egoera aztertu eta baloratu klima-babesleku gisa egokitu daitezkeen, esku-hartze bideragarri eta ondo justifikatuarekin.



AUKERAK



Galdu behar ez dituzun bi aukera

Inmigrazioa eta kulturarteko bizikidetza

(Eusko Jaurlaritza)

EAEko tokiko erakundeei, tokiko erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzendutako laguntzak, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko. Aukera bereziki garrantzitsua da harrera, bizikidetza, parte-hartze komunitarioa eta gizarteratze politikak indartu nahi dituzten udalerrientzat.

- **Aurrekontua:** 1.330.000 €
- **Epea:** 2026/10/01
- **Hartzaileak:** toki-erakundeak, toki-administrazio autonomoak edo tokiko merkataritza-sozietateak

Autokontsumoa eta kontsumo termikoen

Elektrifikazioa

(EVE - Eusko Jaurlaritza)

Programak autokontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzeko eta energia berriztagarrien bidezko kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduerak finantzatzen ditu Euskadin. Energia-aurrezpenean, emisioen murrizketan eta udal eraikin eta instalazioen modernizazioan aurrera egin nahi duten toki-erakundeentzat lehentasunezko aukera bat da.

- **Aurrekontua:** 80.000.000 €
- **Epea:** 2026ko irailaren 30era arte edo agortu arte
- **Hartzaileak:** udalerriak, mankomunitateak, koadrilak eta Euskadiko beste toki-erakunde batzuk.



ADI! LASER ITXIKO DIREN EPEAK



Premiazko deialdiak – ekin orain

Hurrengo deialdiak datozen egunetan amaituko dira. Zure udalerrriak baldintzak betetzen baditu, kontsultatu informazio-fitxa eta planifikatu aurkezpena epearen barruan.

→ ● 09/03an itxiko da – LIFE 2026 proposamenaren deialdiak (Europako Batzordea)

Natura, bioaniztasun, ekonomia zirkular, ekintza klimatiko eta trantsizio energetikoko proiektuetarako Europaren finantzaketa.

Epea: tipologiaren arabera, lehen itxiera 2026/09/03an.

→ ● 09/07an itxiko da – Ingurumen Zerbitzuengatiko ordainketak (Arabako Foru Aldundia)

Arabako Lurralde Historikoan habitatak, espezieak eta naturaguneak zaintzeko laguntzak.

Epea: 2026/09/07.

→ ● 09/11n itxiko da – Bizkaiko kultur proiektuak (Bizkaiko Foru Aldundia)

Bizkaiko Lurralde Historikoan kultur proiektuak 2026an zehar egiteko dirulaguntzak.

Epea: 2026/09/11.

→ ● 09/18an itxiko da – Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide sustapena eta babesa (Eusko Jaurlaritza)

KIUB zerbitzua duten toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako laguntzak.

Epea: 2026/09/18.



ADI! LASTER



Hurrengo deialdiak

Hurrengo deialdien jarraipena egiten ari gara, toki-erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeelakoan. Oraindik funtsezko informazioa osatu gabe dagoen arren, komeni da aldez aurretik ezagutzea, udalera zenbateraino egokitzen den baloratzeko eta, hala badagokio, parte-hartzea prestatzeko.

→ ● Epearen zain – Tokiko edo eskualdeko komunikazio-proiektuak euskaraz (Arabako Foru Aldundia)

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskarazko tokiko edo eskualdeko komunikazio-proiektuak finkatzeko, garatzeko eta normalizatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Argitalpena: ALHAO 69. zk. · 2026/06/17 Erreferentzia:

BOTHA-2026-69 1771

Aurrekontua: 322.504 €

Egoera: Eskaerak aurkezteko epea argitaratzeko dago.



GOMENDIO TEKNIKO

Hileko gomendioa: Prestatu urteko azken hiruhilekorako proiektu-zorria

Zure udalerriak proiekturik prest ahal du udazkeneko deialdiak aprobetxatzeko?

Iraila une egokia da lehentasunak ordenatzeko, lantzeke dauden proiektuak berrikusteko eta urte amaiera baino lehen itxi daitezkeen deialdiak aurreikusteko.

1 Eguneratu aukeren mapa

Berrikusi irekita dauden deialdiak, udazkeneko epeak eta urteko azken hiruhilekoan argitaratu ohi diren laguntzak.

2 Bilakatu ideiak prest dauden proiektuetan

Zehaztu proiektu bakoitzaren helburuak, jarduketak, aurrekontu estimatua, udal-arlo arduraduna eta heldutasun teknikoaren maila.

3 Aurreikusi baliabideak eta kofinantzaketa

Aztartu zein proiektuk beharko duten udal-kreditua, laguntza teknikoa, barne-akordioak edo beste erakunde batzuekin lankidetzak.

Gure gomendioa

Iraila amaitu baino lehen, prestatu lehentasunezko proiektuen zorri labur bat urteko azken hiruhilekoari begira. Jarduketak, arduradunak eta finantzaketa-beharrak aldeztu aurretik identifikatuta izateak aukera ematen du deialdi berriak irekitzen direnean azkar erantzuteko, eta saihesten du beti epearen kontra lan egitea.



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[EUSKADI](#)

Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko dirulaguntzak.

Deskribapena

Agindu honen xedea da dirulaguntza batzuetarako oinarriak onartzea 2026rako eta haien deialdia egitea, norgehiagokaraubidean, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzenduta, zehatz-mehatz immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren eremuan jarduerak garatzeko.

Hartzaileak

Erakunde hauek izan daitezke immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak prestatu eta egiteko laguntzen onuradun:

- a) EAEko toki-erakundeak.
- b) EAEko tokiko organismo autonomoak.
- c) EAEko tokiko merkataritza-sozietateak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Ongizate, Gazteria eta Erronka
Demografikoaren Saila - EUSKO JAURLARITZA

Epea : 2026/10/01

Aurrekontua: 1.330.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EUSKADI

Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko 2026rako dirulaguntzak.

Deskribapena

Oinarri hauen bidez, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko dirulaguntzak ematea arautzen da, 2026ko ekitaldirako.

Hartzaileak

Oinarri hauetan ezarritako laguntzak jaso ahal izango dituzte liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, toki-erakunde eskudunek eta udal liburutegi publikoen arloko eginkizunak esleituta dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erakundeek.

Funtsezko datuak

**Erakundea: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- EUSKO JAURLARITZA**

Epea : 2026/10/01

Aurrekontua: 250.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[EUSKADI](#)

Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko sarean dauden liburutegien erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Deskribapena

Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia arautzea dute xede oinarri hauek.

Hartzaileak

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dauzkaten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erakundeak.

Funtsezko datuak

**Erakundea: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- EUSKO JAURLARITZA**

Epea : 2026/10/01

Aurrekontua: 300.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EUSKADI

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko, toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei dirulaguntzak.

Deskribapena

Onartzea toki-erakundeei eta haiek sustatutako entitateei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeko eta babesteko ematen zaizkien dirulaguntzen oinarri arautzaileak (eranskinean daude jasota) eta 2026rako deialdia.

Hartzaileak

Laguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako toki-erakundeak, dela banaka, dela zerbitzua partekatzen duten zenbait toki-erakunderen ordezkari gisa, bai eta haiek sustatutako entitateak ere, baldin eta KIUB zerbitzua badute.

Funtsezko datuak

**Erakundea: Turismo, Merkataritza eta
Kontsumo Saila – EUSKO JAURLARITZA**

Epea : 2026/09/18

Aurrekontua: 1.208.368 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

2026eko ekitaldiko deialdi publikoa, norgehiagoka bidez, ingurumen zerbitzuengatik ordaintzeko.

Deskribapena

Oinarri hauen xedea da Ingurumen Zerbitzuengatiko Ordainketak (edo IZO) ematea arautuko duten baldintzak arautzea. Ordainketa horiek lagundu egiten dute habitatak, fauna eta flora espezieak eta zaintzeko legezko espazio edo irudiak zaintzen.

Hartzaileak

Ingurumen Zerbitzuengatiko Ordainketak hartzailea izan ahalko da edozein pertsona natural edo juridikoa, publikoa zein pribatua, 400 biztanletik gorako biztanleria duten tokiko erakundeak kanpo utzita, Arabako Lurralde Historikoan erabileragatik, aprobetxamenduagatik edo jabetzagatik ingurumen zerbitzuak sortzen dituzten espazioen lursailen jabe badira edo erabilera eskubidea duten ustategien jabe badira.

Funtsezko datuak

**Erakundea: Ingurumen eta Hirigintza Saila –
ARABAKO FORU ALDUNDIA**

Epea : 2026/09/07

Aurrekontua: 50.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

Tokiko erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzak

Deskribapena

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu kredituen kontura, toki erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzak emateko bete behar diren betekizunak, betebeharrak eta prozedura ezartzea.

Hartzaileak

Honako hauek izan daitezke onuradunak:

- a) 500 biztanletik beherako herriguneek osatutako Arabako kontzejuak.
- b) Araban benetan bizi diren pertsona fisikoak, errentaren gehieneko irizpide hauek betetzen badituzte.

Funtsezko datuak

Erakundea: Lurralde Oreka eta Lurralde Antolaketa Saila – ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea : Esleitutako aurrekontua agortu arte edo, hala gertatzen ez bada, 2026/10/15a arte

Aurrekontua: 200.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EUSKADI

Nekazaritza-sektorean zerbitzuak ematen dituzten sasoikako langileentzako ostatu izateko higiezinak sortzeko, egokitzeko edo hornitzeko laguntzak.

Deskribapena

Oinarri hauen xedea da nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzen deialdia arautzea.

Hartzaileak

Pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Elikadura, Landa Garapen,
Nekazaritza eta Arrantza Saila – EUSKO
JAURLARITZA

Epea : 2026/10/15

Aurrekontua: 40.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BIZKAIA](#)

2026ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan kultur proiektuak egiteko dirulaguntzak.

Deskribapena

2026ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan kultur proiektuak egitea.

Hartzaileak

- a) Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 4ko 61/2000 Dekretuan araututako elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomiadunak eta udalen mankomunitateak.
- c) Enpresen kultura-proiektuen lerrorako enpresak.

Funtsezko datuak

**Erakundea: Euskara, Kultura eta Kirol Saila –
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

Epea : 2026/09/11

Aurrekontua: 450.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[EUSKADI](#)

Toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko dirulaguntzak

Deskribapena

Deialdi honen xedea da hirugarren oinarrian adierazitako euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko dirulaguntzak ematea 2026ko ekitaldian.

Hartzaileak

Deialdi honetan ezartzen diren laguntzen onuradun izan ahal izango dira hemen zerrendatzen diren administrazio publikoak:

- a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-administrazioak. Deialdi honen ondorioetarako, toki-administrazioen kategoriak udalak, mankomunitateak eta kuadrillak hartzen ditu barruan, baina ez foru-administrazioak.
- b) Euskadiko Autonomia Erkidegoko foru-administrazioak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila – EUSKO JAURLARITZA

Epea : 2026/09/30

Aurrekontua:

Foru-administrazioak: 185.000 €

Toki-administrazioak: 410.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BOE](#)

Klimaren Babeslekuen Sarearen esparruan, klimaren babeslekuak jartzeko dirulaguntzen deialdia.

Deskribapena

Deialdiaren xede espezifikoa da klimaren babesleku bihurtuko diren eta Klimaren Babeslekuen Sarean sartuko diren barruko espazioak moldatzen eta egokitzen laguntzea.

Hartzaileak

A) linearako:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta organizazio publiko eta pribatuak.
- Administrazio publikoak.
- Ikerketako erakunde publikoak.
- Unibertsitate publikoak.
- Elkargo profesionalak.

B) eta C) lerroetarako administrazio publikoak izan daitezke onuradunak..

Funtsezko datuak

Erakundea: Biodibertsitatearen Fundazioaren, F.S.P., Zuzendaritza- TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA.

Epea : 2026/10/15

Aurrekontua:

- A) Lerroan 50.000,00 € eskatu ahal izango dira.
- B) Lerroan 300.000,00 € eskatu ahal izango dira.
- C) Lerroan 250.000,00 € eskatu ahal izango dira.



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BOE](#)

Espainiako hirietako azpiegitura berdea garatzeko eta finkatzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdia, EGEFk finantzatuta.

Deskribapena

Deialdi honen xedea da hiri-birnaturalizazioan laguntzen duten jarduerak sustatzen dituzten proiektuak sostengatzeko dirulaguntzak ematea arautzea.

Hartzaileak

Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte probintzietako hiriburu-udalek, 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek, eta biztanleria-baldintzak betetzen dituzten foru- eta probintzia-aldundiek, uharteetako kontseiluek eta metropoli-eremuek. Horrez gain, toki-erakunde onuradun batek koordinatutako talde batean parte hartuz, toki-administrazio-erakunde batzuek, partzuergoek, mankomunitateek, erakunde publikoek, unibertsitate publikoek, ikerketa-erakunde publikoek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek, elkargo profesionalek, zentro teknologikoek eta I+G+B zentroek, baita Portuko Agintaritzek eta Estatuko Portuek ere, laguntzak eskuratu ahal izango dituzte.

Funtsezko datuak

Erakundea: Biodibertsitatearen Fundazioaren, F.S.P., Zuzendaritza- TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA.

Epea : 2026/10/29

Aurrekontua: 500.000,00 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

GIPUZKOA

Garapen jasangarrira bideratutako lurralde partekatu gisa, mugaz gaindiko komunitatea (Gipuzkoa-Pirinio Atlantikoak) sustatzeko Ideiak programako dirulaguntzen 2026ko deialdia

Deskribapena

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak bi lurraldeetako (Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoak) erakundeen arteko lankidetzaren proiektuen garapena izango dira, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eremuetan mugaz gaindiko harremanak sustatu eta sendotzeko (hala nola: garapen jasangarria, kultura, tokiko ekonomia, kirola, gazteria, ikaskuntza, ekintzailera, eleaniztasuna, euskara, ekologia, berrikuntza, energia, ongizatea, berdintasuna, aniztasuna eta gizarteratzea, besteak beste).

Hartzaileak

Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatutako hauek: elkarte, fundazio, enpresa, ikastetxe, unibertsitate, udal, mankomunitate edo bestelako erakunde publiko edo pribatuak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Bide Azpiegiturretako eta Lurralde Estrategiako Departamentua – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/09/17

Aurrekontua: 150.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

GIPUZKOAKO

Arte eszeniko eta musika eta arte eszenikoak sustatzeko programen urteko programazioa, Euskadiko Antzoki Sarean sartutako antzokietan

Deskribapena

Gipuzkoako toki-erakundeei, haien mendeko erakundeei eta Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko kultura erakundeei zuzendutako dirulaguntzak dira, Euskadiko Antzoki Sarean integratutako antzokietan arte eszenikoen eta musikaren urteko programazioa egiteko eta arte eszenikoak sustatzeko programak egiteko.

Hartzaileak

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak antolatzen dituzten toki-erakundeek eta haien menpeko erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

Funtsezko datuak

Erakundea: Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentua – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/09/25

Aurrekontua: 299.800 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BIZKAIA](#)

Bizkaiko udalek 2026ko ekitaldian kultur jarduerak egitea

Deskribapena

Foru dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso ahal izango dute 6.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalek egindako kultur jarduerak, baldin eta kultur sustapen eta zabalkundearekin zerikusi zuzena badute.

Hartzaileak

Foru dekretu honen onuradun izan daitezke, 6.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerritako udalak eta haien udal erakunde autonomoak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Euskara, Kultura eta Kirol Saila
– BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/09/30

Aurrekontua: 350.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

[BIZKAIA](#)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak

Deskribapena

Foru dekretu honen bidez, erregulatu nahi dira 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako emango zaizkien laguntzak.

Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriak eta mankomunitateak eskuratu ahal izango dituzte dekretu honetan jasotako dirulaguntzak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila – BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/09/30

Aurrekontua: 251.135 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EB



LIFE 2026 proposamenen deialdiak

Deskribapena

LIFE 2026 programak Europako trantsizio berdea bultzatzeko proiektuak finantzatzen ditu. Deialdiek proiektu pilotuak eta frogapen-proiektuak nahiz jarduera estrategikoak, integratuak, gobernantzakoak, laguntza teknikokoak eta koordinaziokoak babesten dituzte, eta interes berezia dute konponbide errepikagarri, eskalagarri eta lerrokatuetan, Europar Batasunaren ingurumen-, klima- eta energia-lehentasunekin bat datozenetan.

Hartzaileak

Udalak eta toki-erakundeak.

Eskumena duten erakunde publikoak, entitate publikoak eta administrazioak.

Erakunde pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta nortasun juridikoa duten beste eragile batzuk.

Europar Batasuneko zenbait erakunde edo LIFE programari atxikitako zenbait herrialdek osatutako partzuergoak.

Oharra: Toki-erakundeek onuradun koordinatzaile gisa edo proiektu-bazkide gisa parte har dezakete, deialdiaren ildoaren eta jardunaren irismenaren arabera.

Funtsezko datuak

Erakundea: : European Climate, Infrastructure and Environment Executive Agency – EUROPAKO BATZORDEA

Epea: Proiektuaren tipologiaren arabera, 2026/09/03tik 2027/03/04ra.

Aurrekontua: 601.500.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

BIZKAIA

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

Deskribapena

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/10/15

Aurrekontua: 1.200.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

ARABA

Aurreikusi ezin diren egoeretan toki-erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak

Deskribapena

Premiazko ustekabeko gastuak eta larrialdiko obrak finantzatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kontzejuak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila – ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/12/31 edo aurrekontua agortu arte.

Aurrekontua: 300.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EEE

Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntzak

Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia aurrezte eta efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko, argitara eman da Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntza-programa hau.

Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeak; udalerri-mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat; toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak; udal-enpresa publikoak, baldin eta atal honetan aurreikusitako erakundeek horien kapital sozialean duten zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza % 50etik gorakoa bada; fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakundeko ordezkariez osatuta badago; partzuergoak eta mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada.

Funtsezko datuak

Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-Eusko Jaurlaritza

Epea: 2028/10/17 edo aurrekontua agortu arte

Aurrekontua: 5.000.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

EEE

Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzak

Deskribapena

EAEn energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea.

Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Funtsezko datuak

Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-Eusko Jaurlaritza

Epea: 2026/09/30 edo aurrekontua agortu arte

Aurrekontua: 80.000.000 €



 [DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

BIZKAIA

Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte-hartzea sustatzeko dirulaguntzak

Deskribapena

Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkarteei laguntza teknikoa eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea.

Hartzaileak

Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak; haien udal-erakunde autonomoak eta udal-enpresa publikoak; Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak: Bizkaiko mankomunitateak, Bizkaiko «Behargintzak» Enplegurako Laguntzarako Zentroak, Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak, Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak (Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa).

Funtsezko datuak

**Erakundea: Ogasun eta Finantza Saila –
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

**Epea: 2026/10/31 (13:30ean) edo aurrekontua
agortu arte**

Aurrekontua: 60.000 €



ZERBITZUA ETA KONTAKTUA



Hurrengo zenbakira arte

Eskerrik asko Udal Aukerak-en hilabetekaria irakurtzeagatik. Gure taldeak hilero lan egiten du zure udalerrirako finantzaketa-aukera garrantzitsuenak eskaintzeko, azkar eta segurtasunez jarduteko beharrezko informazioarekin.

Zuzeneko harremana

 www.eudel.eus/udalaukerak

 eudel@eudel.eus

 944 23 15 00

 Ercilla kalea 13, 48009 Bilbo

Udal Aukerak EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen zerbitzua da.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Buletin honetan baja emateko, idatzi adierazitako helbide elektronikora.

Jarrai gaitzazu eta partekatu buletina

Partekatu buletina zure inguruko beste teknikari eta udal-arduradun batzuekin. Zenbat eta udal gehiagok eskuratu hemengo informazioa, orduan eta eragin handiagoa izango du lurraldean.



Eskaneatu kodea, deialdi eta fitxa eguneratuen atari nagusira sartzeko.



Harpidetza

Izena eman newsletterra jasotzeko.



UDAL AUKERAK ZERBITZUA



Zer da Udal Aukerak?

Udal Aukerak EUDDEL-en zerbitzua da, Euskadiko toki-erakundeei zuzendutako finantzaketa-aukerak identifikatu eta zabaltzera bideratua, eta Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako dirulaguntzen deialdiei eta finantzaketa-programei buruzko informazio eguneratua ematen du.

Zer eskaintzen dugu?

EAEko toki-erakundeentzat garrantzitsuak diren finantzaketa-deialdiak aurkitzea eta sistematikoki biltzea.

Informazioa

Deialdi bakoitzaren funtsezko alderdiak laburbiltzen dituzten (hartzaileak, xedea, epeak eta baldintzak) informazio-fitxak, newsletterrak eta dokumentu-baliabideak egitea eta argitaratzea,

Zabalkundea

Deialdien biltegia aldizka eguneratzea eta informazio-komunikazioak bidaltzea, finantzaketa-aukerak errazago eskuratzeko.

